*Gipuzkoako Foru Aldundiaren zerbitzurako pertsonala hautatzeko prozesuen oinarri orokorrak, 2006ko otsailaren 28an Diputatuen Kontseiluak emandako erabakiaren bitartez onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren mende diren lanpostuei buruzkoak.*

*1. Xedea.*

1.1. Oinarrien xedea da Gipuzkoako Foru Aldundiko langileriakoak diren eta oinarri espezifikoetan jasotzen diren lanpostuak betetzeko oinarri orokorrak ezartzea.

1.2. Deialdiaren barne dira 2006ko otsailaren 28an Diputatuen Kontseiluak emandako Erabakiaren bitartez onartutako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren mende diren lanpostuak.

Oinarri espezifikoetan zehaztuta dago zein plaza beteko diren txanda irekian, zein ezgaituenean eta zein barne sustapenean.

Barne sustapeneko txandan edo ezgaituentzako txandan bete beharreko plazak bete gabe geratzen badira, nahiz hautagairik ez dagoelako nahiz hautagaiek hautapen prozesuak gainditzeko eskatutako baldintzak betetzen ez dituztelako, hutsik geratutako plaza horiek txanda irekian bete beharrekoei gehituko zaizkie, baldin eta 1.3 atalean aipatzen diren plazetakoak ez badira. Ezgaitutako izangairen bat ezgaituentzako txandaren bitartez lehiatzen baldin bada eta, proba guztiak gainditura, ez badu plazarik eskuratzen, baina sistema orokorrean lehiatutako beste izangai batzuek baino puntuaketa handiago lortzen baldin badu, bere puntuaketaren hurrenkeraren arabera sartuko da aipatutako sistema orokor horretan.

1.3. 2006ko otsailaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren Erabakiko hirugarren atalean xedatutakoaren arabera, barne sustapenean bete beharreko plaza batzuk sistema orokorrean sartzeko deialdietatik aparte betetzea erabaki zen, Gipuzkoako Foru Aldundiko giza baliabideen antolamendu orokorraren ondorioz. Oinarri espezifikoetan jasota daude sistema horren bitartez bideratutakoak. Plaza horiek bete gabe gelditzuz gero ere, ez zaizkie inola ere txanda irekian ateratakoei gehituko.

1.4. Baldintza jakinen bat ezarrita duten lanpostuak ezin izango dituzte bete, inola ere, eskakizun hori egiaztatu ez duten hautagaiek.

*2. Baldintza orokorrak.*

2.1. Plazak Gipuzkoako Foru Aldundiko langileria unitariokak dira eta, beraz, ez dute ematen lana toki edo departamentu jakin batean egiteko eskubiderik, plaza horietan aritzen diren langileak beste batzuetara aldatuak izan baitaitezke.

Zer plaza zehatzetan lan egingo den, dei egindako plaza horietan hautapen prozesua amaitzerakoan hutsik daudenen arabera erabakiko da.

2.2. Plaza bakoitzari oinarri espezifikoetan adierazten den hizkuntza eskakizuna dagokio. Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa denean, ezinbestekoa izango da hura egiaztatzea. Hizkuntza eskakizuna derrigorrezkoa ez denean, egiaztatuz gero merezimendutzat hartuko da, non eta ez den derrigorrezko bihurtzen hautapen prozesuan zehar, kasu horretan hura egiaztatzea nahitaezko baldintza izango baita.

2.3. Lanaldia eta gainerako lan baldintzak, esleitutako lanpostuak ezarriak dituenak izango dira.

*Bases generales de los procesos selectivos de personal al servicio de la Diputación Foral de Gipuzkoa correspondientes a las plazas objeto de Oferta de Empleo Público aprobada mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de fecha 28 de febrero de 2006.*

*1. Objeto.*

1.1. Es objeto de las presentes bases establecer las normas generales para la provisión de las plazas que se indican en las bases específicas pertenecientes a la plantilla de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1.2. Las plazas convocadas corresponden a la Oferta de Empleo Público aprobada mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de fecha 28 de febrero de 2006.

En las referidas bases específicas se establecen aquellas plazas que se reservan para su provisión por el turno libre, por el cupo de reserva para personas con discapacidad y por el turno de promoción interna.

Las plazas reservadas al turno de promoción interna o al cupo de reserva para personas con discapacidad que fueran declaradas desiertas, por falta de concurrencia o por no cumplir las personas aspirantes las condiciones exigidas para la superación de los correspondientes procesos selectivos, se acumularán a las ofertadas en el turno libre, siempre y cuando no correspondan a plazas de las incluidas en el apartado 1.3. En el supuesto de que alguna de las personas aspirantes con discapacidad concurriera por el cupo de reserva y que superando los ejercicios correspondientes no obtuviese plaza y su puntuación fuera superior a la obtenida por otras aspirantes del sistema de acceso general, será incluida por su orden de puntuación en el señalado sistema general.

1.3. En el apartado tercero del Acuerdo del Consejo de Diputados de fecha 28 de febrero de 2006, se contempla la realización de procesos de promoción interna en convocatorias independientes de las de ingreso como consecuencia de la planificación general de los recursos humanos de la Diputación Foral de Gipuzkoa. En las bases específicas se recogen las incluidas por este sistema. Estas plazas en caso de declararse desiertas, no se acumularán en ningún caso a las ofertadas por el turno libre.

1.4. Los puestos que tuvieran establecido un determinado requisito para su provisión, no podrán ser provistos, en ningún caso, por aspirantes que no hubieran acreditado su cumplimiento.

*2. Condiciones generales.*

2.1. Las plazas se integran en la plantilla unitaria de la Diputación Foral de Gipuzkoa y no conllevan derecho a prestar servicios en un destino ni departamento determinado, pudiendo las personas que las desempeñen ser trasladadas a otros.

El destino en el que se prestará el servicio vendrá determinado por las vacantes que existan en el momento de la finalización del proceso selectivo, correspondientes a la plaza convocada.

2.2. Las plazas tienen asignado el perfil lingüístico indicado en las bases específicas. En los casos en los que dicho perfil tenga carácter preceptivo su acreditación será requisito obligatorio. En aquellos otros en los que el perfil lingüístico no sea preceptivo, su acreditación se valorará como mérito, sin perjuicio de que devenga preceptivo a lo largo del proceso selectivo, constituyendo en tal caso su acreditación requisito obligatorio.

2.3. La jornada y restantes condiciones de trabajo serán las establecidas para los puestos a los que se adjudique el destino.

*3. Izangaien baldintzak.*

3.1. Oinarri espezifikoetan jasotako plazetarako hautapen prozesuetan onartua izateko eta parte hartu ahal izateko, hautagaiek honako eskakizun hauek bete behar dituzte, eskaera orriak aurkezteko epea amaitu baino lehenago eta hautapen prozesu osoan zehar:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatugabearen ondorengoak ere, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.

b) Hemezortzi urte beteta izatea eta nahitaez erretiratzeko adina ez gainditzea eskaera orriak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

c) Lanpostuen eginkizunak normaltasunez betetzea galaraziko dion gaixotasunik nahiz muga fisiko edo psikikorik ez izatea, 1982ko apirilaren 7ko 13/82 Legea, ezgaituak gizarteratzekoa, aplikatzea eragotzi gabe ere.

Dagokion unean egiaztatu behar da hori, epaimahaiak onartutzat jotzen dituen hautagaiei bakarrik egingo zaizkien proba eta azterketen bitartez. Azterketa horiek beti izendapena egin aurretik egingo dira, hau da, praktika edo prestakuntza aldia egitea aurreikusita dagoenean praktikaldiko funtzionario izendatu aurretik eta, gainerakoetan, karrerako funtzionario izendatu aurretik. Azterketa horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak erabakitako zerbitzuetan egingo dira.

Hautapen prozesuan zehar, beharrezkoa iruditzen bazaio, epaimahaiak Foru Administrazioaren Kalitaterako Departamentuari eskatu ahal izango dio hautapen prozesua amaitu zain egon gabe ezgaituen txandan parte hartzen ari diren hautagaiei mediku proba eta azterketa egokiak egiteko, kasuan kasu aurkeztu diren plazan ohikoak diren jarduerak betetzeari begira eskakizun hori betetzen duten egiaztatzearren.

d) Eskatzen den titulu ofiziala edo homologatua edukitzea edo eskuratzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologatuta daudela egiaztatzen duen agiria eduki beharko da.

e) Diziplina espedientearen bidez inongo herri administraziotatik kendua ez izatea eta herri eginkizunak betetzeko ezgaiturik ez egotea. Atzerritarrek egiaztatu beharko dute ez dutela beren estatuan funtzio publikoan aritzea debekatzen dien diziplinako zigorrik edo zigor penalik.

f) Oinarri espezifikoetan nahitaezkotzat jotzen diren gainerako eskakizunak betetzea.

3.2. Ezgaitasuna duten pertsonentzako gordetako kupoa:

Ezgaituentzat gordetako plazetara aurkezten direnek %33ko ezintasuna edo handiagoa izan behar dute eta ezgaitasun agiria eduki behar dute, administrazio organo eskudunak emana (foru aldundietan, IMSERSOn edo balio berekoetan).

*3. Requisitos de los y las aspirantes.*

3.1. Para ser admitido, y en su caso, tomar parte en los procesos selectivos para las plazas que se detallan en las bases específicas, los y las aspirantes deberán reunir con anterioridad al cierre del plazo de presentación de instancias y mantener durante todo el proceso selectivo hasta el momento del nombramiento, los siguientes requisitos:

a) Tener la nacionalidad de alguno de los estados miembros de la Unión Europea, o ser nacional de algún estado al que, en virtud de la aplicación de los tratados internacionales celebrados por la Unión Europea y ratificados por el Estado español, le sea de aplicación la libre circulación de trabajadores.

También podrán participar cónyuges de los nacionales de los estados miembros de la Unión Europea, siempre que no estén separados de derecho, así como sus descendientes y los de su cónyuge, siempre, asimismo, que ambos cónyuges no estén separados de derecho, sean éstos descendientes menores de veintiún años o mayores de dicha edad que vivan a sus expensas.

b) Tener cumplidos 18 años de edad y no exceder de la edad de jubilación forzosa, en la fecha en que finalice el plazo de presentación de instancias.

c) No padecer enfermedad o limitación física o psíquica que impida el normal desempeño de las funciones correspondientes, sin perjuicio de la aplicación de la Ley 13/1982, de 7 de abril, de integración social de minusválidos.

Este extremo habrá de acreditarse en su momento, tras unas pruebas y un reconocimiento a que serán sometidos sólo los y las aspirantes aprobados por el tribunal, con carácter previo al nombramiento como funcionario o funcionaria en prácticas, cuando esté prevista como tal, la realización del período de prácticas y formación, o con carácter previo al nombramiento como funcionario o funcionaria de carrera, en los demás casos. Dicho reconocimiento se llevará a efecto en los servicios determinados por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Si en el desarrollo del proceso selectivo el tribunal lo considera necesario, podrá recabar del Departamento para la Calidad en la Administración Foral la realización de las pruebas y reconocimiento médico precisos a los y las aspirantes que concurran por el cupo de reserva para personas con discapacidad para la comprobación del cumplimiento de este requisito en lo relativo al desempeño de las actividades habitualmente desarrolladas en las plazas de la convocatoria a la que optan, sin necesidad de esperar a la finalización del proceso selectivo.

d) Estar en posesión, o haber abonado los derechos para su expedición, del título oficial u homologado. En el caso de las titulaciones extranjeras se deberá estar en posesión de la credencial que acredite su homologación.

e) No haber sido separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de ninguna administración pública, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas. Los extranjeros deberán acreditar no estar sometidos a sanción disciplinaria o condena penal que impida, en su estado, el acceso a la función pública.

f) Cualesquiera otros requisitos que se exijan en las bases específicas.

3.2. Cupo de reserva para personas con discapacidad:

Quienes concurran a plazas reservadas a personas con discapacidad deberán tener reconocida la condición de tales, con discapacidad de grado igual o superior al 33%, por el órgano competente de la Administración (departamento competente de las diputaciones forales, IMSERSO, o equivalente).

3.3. Barne sustapeneko txanda:

Barne sustapenean ateratako plazetara aurkezten direnek, 3.1 oinarrian aipatutako eskakizun orokorrez gain, honako hauek bete behar dituzte:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionarioa eta aurkezten den lanposturako deialdi espezifikoan adierazten den sailkapen taldekoa izatea eta jatorrizko eskalan karrerako funtzionario gisa gutxienez bi urteko zerbitzua betea izatea.

b) Zerbitzu aktiboko egoeran edo parekoan egotea edo zerbitzu berezietan egotea, hautagaiak duen eskalan.

Dena den, administrazio bereziko eskalako zerbitzu berezietako azpieskalako Suhiltzaile Zerbitzuaren klaseko plazak betetzeko deialdietan barne sustapeneko txandan parte hartzeko eskakizunak oinarri espezifikoetan zehazten direnak izango dira, 1996ko apirilaren 3ko 1/96 Legeak, Larrialdien Kudeaketakoak, 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.

— Zerbitzu aktiboko egoeran edo zerbitzu berezietan egotea beheragoko hurrengo kategorian.

— Ez zigortua izatea hutsegite larri edo oso larri bat egin izanagatik, non eta ezarritako zigorra deuseztatzea lortua ez den.

D taldetik C talderako barne sustapenean, titulazioari dagokion eskakizuna Euskal Funtzio Publikoaren Legeak hamaseigarren xedapen gehigarrian dioenera egokitu ahal izango da, oinarri espezifikoetan berariaz aipatzen den kasuetan.

3.4. Deialdi espezifiko bakoitzean txanda bakarrean parte hartu ahal izango dute hautagaiek, hau da, barne sustapenean, txanda irekian ala ezgaituenean, eta zein txanda den adierazi behar dute eskaeran bertan.

Hautagai batek zein txanda aukeratzen duen berariaz aipatzen ez badu, deialdi bereko aukera baliodun bat baino gehiago adierazi baditu edo aukeratu duen txanda murrizturako eskakizunak betetzen ez baditu, txanda irekian parte hartzeko eskaeratzat joko da ofizioz.

*4. Eskaerak aurkeztea.*

4.1. Epea:

Parte hartu nahi den deialdi espezifiko bakoitzean onartua izateko eskaera orri normalizatuak Foru Administrazioaren Kalitaterako Departamentuko foru diputatuari zuzenduta aurkeztuko dira, oinarri hauek eta deialdi guztiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasi eta, gehienez, deialdiari buruzko iragarkia *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratzen denetik hogei egun naturaleko epea amaitu arte.

4.2. Eskaera orriaren baldintzak:

a) Eskaera orriaren eredu normalizatua erabili behar da. Eredu hori Gipuzkoako Foru Aldundiko bulegoen beheko oinean eskura daiteke (Gipuzkoa plaza z/g, 20004, Donostia). Nahi izanez gero, oinarri hauen 4.3.b) atalean aipatzen diren erregistroetan ere eskuratu daiteke, eta baita Interneten bitartez ere, helbide honetan hain zuzen: www.gipuzkoa.net/empleo-publico.

3.3. Turno de promoción interna:

Quienes concurran a las plazas de promoción interna, además de cumplir los requisitos generales a los que se refiere la base 3.1., deberán cumplir los siguientes:

a) Ser funcionario o funcionaria de carrera de la Diputación Foral de Gipuzkoa del grupo de clasificación indicado en cada convocatoria específica y haber completado dos años de servicio en la escala de procedencia como funcionario o funcionaria de carrera.

b) Hallarse en situación de servicio activo o asimilado, o servicios especiales en la escala de procedencia.

No obstante, en las convocatorias correspondientes a plazas de escala de administración especial, subescala de servicios especiales, clase Servicio de Extinción de Incendios, los requisitos para participar en el turno de promoción interna serán los consignados en las bases específicas, de conformidad con lo establecido en el artículo 39 de la Ley 1/1996, de 3 de abril de Gestión de Emergencias, y los participantes deberán cumplir los siguientes requisitos:

— Hallarse en servicio activo o servicios especiales en la categoría inmediatamente inferior.

— No haber sido sancionado por la comisión de falta grave o muy grave salvo que se hubiera obtenido la cancelación de la sanción impuesta.

En la promoción interna del grupo D al C, se podrá ajustar el requisito de titulación a lo previsto en la disposición adicional decimosexta de la Ley de la Función Pública Vasca, si así se prevé expresamente en la correspondiente base específica.

3.4. Los y las aspirantes sólo podrán participar en cada convocatoria específica en un único turno, bien en el de promoción interna, bien en el de turno libre o bien por el cupo de reserva para personas con discapacidad, haciéndolo constar en la correspondiente solicitud.

En el caso de que no constara expresamente la opción deseada, o constara más de una opción válidamente formulada para la misma convocatoria o bien el o la aspirante no cumpliera los requisitos del turno restringido al que opta, su solicitud se entenderá de oficio como presentada por el turno libre.

*4. Presentación de instancias.*

4.1. Plazo:

Las instancias normalizadas solicitando la admisión a cada una de las convocatorias específicas se dirigirán al diputado foral del Departamento para la Calidad en la Administración Foral y podrán presentarse a partir del día siguiente al de la publicación de estas bases y de sus correspondientes convocatorias en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y hasta un plazo máximo de veinte días naturales, contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio de las mismas en el *Boletín Oficial del Estado*.

4.2. Requisitos de la instancia:

a) Deberá cumplimentarse el modelo de instancia normalizada, que podrá obtenerse en la planta baja de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ubicada, en Plaza de Gipuzkoa s/n - 20004 de Donostia-San Sebastián. También podrá obtenerse en cualquiera de los registros establecidos en el apartado 4.3.b), así como por Internet, en la siguiente dirección: www.gipuzkoa.net/empleo-publico.

Eskaera orriarekin batera nortasun agiriaren edo, atzerritarra izanez gero, balio bereko agiriaren fotokopia (konpultsatu gabe) aurkeztu behar da derrigorrez.

b) Eskaeraren atal guztiak bete beharko dituzte izangaiek. Adierazi beharko dute eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, betiere eskaera orriak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko erreferentziaz.

Horretarako, eskaera orriaren atal egokietan, datu hauek zehaztu behar dituzte:

— Eskatutako datu pertsonalak.

— Parte hartzen duten deialdia.

— Parte hartu nahi duten txanda: A) irekia, b) barne sustapenekoa, edo c) ezgaitasuna duten pertsonentzat gordetako txanda, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera. Hautagaiek txanda bakarrean parte hartu ahal izango dute deialdi bakoitzeko.

— Ezgaitasunen bat duten hautagaiek aipatu egingo dute hori eskaeran, hautapen probak egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten egokipen teknikoak ere aipatuta.

— Oposizioaldiko ariketak egiteko aukeratzen duen hizkuntza ofiziala: euskara edo gaztelera.

— Aurkezten den titulu akademiko ofiziala, deialdian partaide izateko baldintzaren araberakoa.

4.3. Aurkezpen tokiak:

Eskaera orriak honako toki hauetan aurkeztu behar dira, behar bezala beteta:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro zentralean, Gipuzkoako Foru Aldundiren beheko oinean (Gipuzkoa plaza z/g, 20004 Donostia).

b) Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartuta dauden udal eta entitateen erregistroetan: Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Aretxabaleta, Baliarrain, Deba, Eibar, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Hernialde, Hondarribia, Idiazabal, Irun, Irura, Larraul, Legazpi, Legorreta, Lezo, Lizartza, Debagoieneko Mankomunitatea, Mendaro, Olaberria, Orendain, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zumaia eta Zumarraga.

c) 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan aurreikusten dituen tokietan:

— Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroetan, beste edozein autonomia erkidegotako erregistroetan eta Estatuko Administrazioaren erregistroetan.

— Posta bulegoetan. Horrelakoetan, kartazal irekian aurkeztu behar zaio eskaera orria postetxeko langileari, hark data ipini eta zigilatu dezan, era ziurtatuan bidali aurretik, betiere aurkezpen epearen barruan. Orduan bakarrik ulertuko da posta bulegora eramandako egunean bertan sartu dela eskaera Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro zentralean. Eskaera orria da zigilua eraman behar duena.

— Araudi aplikagarrian aurreikusten den beste edozein eratan.

5. *Aurkeztu beharreko agiriak.*

5.1. Eskaera orriarekin batera aurkeztu beharrekoa:

— Nortasun agiriaren fotokopia edo, atzerritarra izanez gero, balio bereko agiriarena (konpultsatu gabe).

A la instancia deberá acompañarse necesariamente la fotocopia del DNI o documento equivalente en caso de ser extranjero (sin compulsar).

b) Los y las aspirantes deberán cumplimentar la solicitud en todos sus apartados. Deberán manifestar que reúnen todos y cada uno de los requisitos exigidos, referidos siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

Para ello, en los apartados correspondientes de la solicitud, los y las aspirantes deberán señalar:

— Datos personales solicitados.

— Convocatoria a la que concurren.

— Turno por el que desean participar: A) libre, b) promoción interna o c) cupo de reserva para personas con discapacidad, de acuerdo con lo establecido en las bases específicas. Cada aspirante sólo podrá participar en un turno por convocatoria.

— Las personas afectadas por discapacidades deberán hacer constar en su solicitud este hecho y las adaptaciones técnicas que, en su caso, consideren necesarias para la realización de las pruebas selectivas.

— Idioma oficial, euskera o castellano, en que desean realizar los ejercicios de la fase de oposición.

— Titulación académica oficial alegada y exigida como requisito de participación en la convocatoria.

4.3. Lugares de presentación:

Las instancias se presentarán debidamente cumplimentadas en alguno de los siguientes lugares:

a) En el registro central de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ubicado en la planta baja de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Plaza de Gipuzkoa s/n, 20004 de Donostia-San Sebastián.

b) En cualquiera de los registros de los ayuntamientos y entidades de Gipuzkoa que tienen concertado convenio con la Diputación Foral: Abaltzisketa, Alegia, Altzo, Aretxabaleta, Baliarrain, Deba, Eibar, Eskoriatza, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Hernialde, Hondarribia, Idiazabal, Irun, Irura, Larraul, Legazpi, Legorreta, Lezo, Lizartza, Mancomunidad del Alto Deba, Mendaro, Olaberria, Orendain, Ormaiztegi, Segura, Urretxu, Zaldibia, Zegama, Zumaia, y Zumarraga.

c) En cualquiera de los lugares previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y en concreto:

— En los registros de la Comunidad Autónoma Vasca, o cualquier otra comunidad autónoma, así como en los registros de la Administración del Estado.

— En las oficinas de Correos. En este supuesto se presentarán en sobre abierto para ser fechadas y selladas por el personal de Correos antes de ser certificadas, dentro del plazo de presentación de instancias. Sólo en este caso se entenderá que las instancias han tenido entrada en el registro central de la Diputación Foral de Gipuzkoa en la fecha que fueron entregadas. Es la instancia la que debe estar sellada.

— En cualquiera de las restantes formas previstas en la normativa aplicable.

5. *Documentación a aportar.*

5.1. Documentación a presentar con la instancia:

— Fotocopia del DNI o documento equivalente en caso de ser extranjero (sin compulsar).

5.2. Hautapen prozesuan zehar aurkeztu behar den dokumentazioa:

a) Merezimenduak:

Hautapen prozesuan zehar, merezimenduak aditzera emateko eta egiaztatzeko epea irekiko du epaimahaiak. Merezimenduen aipamena, horretarako emango den inprimakian egingo da, eta behar diren egiaztagiriez lagundurik aurkeztu behar da.

b) Euskara:

Euskarako probak egiten hasi aurretik, epaimahaiak epealdi bat irekiko du, hautapen prozesuan parte hartzen dutenek aurkez dezaten plazaren hizkuntz eskakizuna badutela egiaztatzen duen agiria, 9.3 oinarrian aurreikusitakoaren arabera.

Aurkezten diren plazari dagokion hizkuntza eskakizuna badutela ziurtatzen duten hautagaiek ez dute euskarako azterketarik egin behar.

c) Frantsesa eta ingelesa:

Frantseseko eta ingeleseko probak egiten hasi aurretik, epaimahaiak epealdi bat irekiko du, hautapen prozesuan parte hartzen dutenek aurkez ditzaten plazarako eskatzen den maila badutela egiaztatzen duten agiriak.

Aurkezten diren plazari dagokion frantseseko edo ingeleseko maila badutela ziurtatzen duten hautagaiek ez dute hartarako azterketarik egin behar.

5.3. Hautapen prozesua amaitutakoan aurkeztu behar den dokumentazioa:

Hirugarren oinarrian parte hartzeari buruz adierazitako eskakizunen egiaztagiriak hautapen prozesua amaitzerakoan aurkeztu beharko dituzte izendapenerako proposatuak izan diren hautagaiek, hamargarren oinarriaren arabera.

Hamargarren oinarrian xedatzen den epearen barruan dokumentazioa aurkezten ez dutenek, halabeharrezko kasuetan izan ezik, edota hura aztertuta egiaztatzen bada hirugarren oinarrian eskatutako baldintzaren bat ez dutela betetzen, praktikaldiko edo, praktikaldirik aurreikusita ez dagoenean, karrerako funtzionario izendatuak izateko eskubide guztiak galduko dituzte, hasierako eskaeran faltsutasuna agertzeagatik izan lezaketen erantzukizuna ahaztu gabe.

5.4. Aurrez aurkeztutako dokumentuak, dokumentuen itzulpena eta konpultsatzea:

Gipuzkoako Foru Aldundiko langile espedientean dagoeneko jasota dauden agiriak ez dira aurkeztu behar, horrelakoetan dokumentua aipatzea aski izango baita kontuan hartua izateko. Parte hartzaile bakoitzaren eginkizuna da bere espediente pertsonaleko edukia aztertzea eta alegatuko dituen merezimenduak ziurtatzeko behar diren dokumentu guztiak bertan jasota daudela egiaztatzea.

Espainiar naziotasuna ez dutenek aurkeztu beharko dute adierazitako dokumentazio guztia euskaraz edo gazteleraz itzulita. Emandako zerbitzuen orriaren kasuan, itzulpen hori zinpeko itzultzaile batek egina izan behar da, eta gainerako agiri guztiak, edo zinpeko itzultzaile batek itzulia, edo dagokion kontsulatuak nahiz bulego diplomatikoak balioztatua izan behar da.

Deialdian parte hartzeko eskakizunak nahiz merezimenduak egiaztatzeko, jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuko dira, eskaera orriari erantsi behar zaion nortasun agiriaren kopia izan ezik.

5.2. Documentación a presentar durante el proceso selectivo:

a) Méritos:

El tribunal abrirá un plazo durante el proceso selectivo para la alegación y acreditación de los méritos. La alegación de méritos se realizará en el impreso que se facilitará al efecto, aportándose la documentación justificativa correspondiente.

b) Euskera:

El tribunal, con anterioridad a la realización de las pruebas de euskera, abrirá un plazo durante el proceso selectivo para que los y las aspirantes que tengan previamente acreditado el perfil lingüístico correspondiente a la plaza a la que optan, aporten la documentación justificativa, conforme a lo previsto en la base 9.3.

Quienes acrediten estar en posesión del perfil lingüístico correspondiente a la plaza a la que optan, quedan exentos de realizar el examen de euskera.

c) Francés e inglés:

El tribunal, con anterioridad a la realización de las pruebas de francés e inglés, abrirá un plazo durante el proceso selectivo para que los y las aspirantes que tengan previamente acreditado el nivel de conocimientos exigido en la plaza a la que optan, aporten la documentación justificativa.

Quienes acrediten estar en posesión del nivel de conocimientos de francés o inglés exigido en la plaza a la que optan, quedan exentos de realizar la prueba correspondiente.

5.3. Documentación a presentar al finalizar el proceso selectivo:

La documentación acreditativa de los requisitos de participación indicados en la base 3.ª se entregará a la finalización del proceso selectivo, por quienes sean propuestos para el nombramiento, de conformidad con lo previsto en la base 10ª.

Quienes, dentro del plazo fijado en las base 10ª, salvo los casos de fuerza mayor, no presentaran la documentación, o del examen de la misma se dedujera que carecen de alguno de los requisitos señalados en la base 3ª, perderán todos sus derechos a ser nombrados funcionarios en prácticas o de carrera, cuando no se haya previsto la realización de tal período, sin perjuicio de la responsabilidad en que hubieran podido incurrir por falsedad en la solicitud inicial.

5.4. Documentos anteriormente aportados, traducción y compulsa de documentos:

No será preciso aportar los documentos que ya obren en el expediente de personal de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en cuyo caso bastará su alegación para ser tenidos en cuenta. Corresponde a cada participante el análisis del contenido de su expediente personal y la comprobación de que en el mismo constan los documentos que acreditan los méritos que vayan a ser alegados.

Quienes no posean la nacionalidad española deberán presentar toda la documentación señalada con la correspondiente traducción oficial al euskera o castellano. En el caso de la hoja de servicios prestados, dicha traducción deberá estar realizada por traductor jurado, en tanto que el resto de la documentación deberá estar realizada por traductor jurado o validada por el consulado u oficina diplomática correspondiente.

La acreditación documental de las condiciones de participación en la convocatoria así como de los méritos, se realizará mediante la presentación de originales o copias compulsadas, a excepción de la copia del DNI a adjuntar con la instancia.

Kopiak konpultsatzea Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro zentralean (Gipuzkoa plaza z/g - 20004 Donostia) edo fedeemaile publiko eskudunaren bidez egin daiteke. Horretarako, jatorrizko agiriak eta kopiak aurkeztu beharko dira.

5.5. Aurkeztutako agiriak berreskuratzea:

Aurkeztutako agiriak berreskuratu ahal izango dituzte izangaiek, deialdi bakoitzeko gainditutakoen eta hautatukoen zerrenda argitaratzeko epaimahai kalifikatzaileak ematen duen ebazpenak xedatutako lekuan eta epean, bazter utzirik praktikaldiko funtzionario gisa edo karrerako funtzionario gisa izendatua izateko beharrezko diren agiriak, eta izangairen batek erreklamaziorik aurkeztu ez baldin badu, kasu horretan egiaztatze edo frogatzat atxikiak izan baitaitezke. Xedatzen den epean jasotzen ez badira, ulertuko da izangaiak ez dituela berreskuratu nahi eta, ondorioz, hartarako eskubidea galduko du.

*6. Izangaiak onartzea.*

Eskaera orriak aurkezteko epea amaitu ondoren, Foru Administrazioaren Kalitateko foru diputatuak onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda onartuko du. Zerrenda Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko iragarki taulan erakutsiko da, eta hamar laneguneko epea emango da bazterketa eragin duten oker edo hutsuneak zuzentzeko eta zerrenden aurkako erreklamazioak egiteko.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada eta ofiziozko akatsak atzematen ez badira, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da, besterik gabe. Erreklamazioak aurkezten badira, eta baiesten badira, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpena emango da. Behin betiko zerrenda ere arestian aipatua den eran argitaratuko da.

Behin-behineko zerrendatik kanpo geratu eta epearen barruan erreklamazioa aurkezten duten hautagaiek aukera izango dute kautelazko izaeraz hautapen probak egiteko, baldin eta erreklamazioa ez bada azterketa egunerako ebatzi.

Era berean, behin betiko zerrendatik kanpo geratu eta bidezkoa den erreklamazioa aurkezten duten hautagaiek aukera izango dute kautelazko izaeraz hautapen probak egiteko, baldin eta erreklamazioa ez bada azterketa egunerako ebatzi.

Onartutakoen zerrendan agertzeak ez du nahitaez esan nahi hautapen prozesuan eskatzen diren baldintza guztiak betetzea aitortzen zaienik hautagaiei. Hautapen prozesua gainditzean aurkeztu beharreko agirietan, bosgarren oinarriaren arabera, egiaztatzen baldin bada hautagaiek ez dutela baldintzaren bat betetzen, prozedura honetan partaide izateagatik eratortzen diren eskubide guztiak galduko dituzte.

*7. Epaimahai kalifikatzailea.*

Foru Administrazioaren Kalitateko diputatuak foru aginduz izendatuko ditu hautapen probak baloratuko dituzten epaimahaiak. Izendapenak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dira.

Epaimahai kalifikatzaileak Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legeko 31.1 artikuluaren arabera eratuko dira, modu honetan:

Epaimahaiburua:

La compulsa de copias podrá realizarse en el registro central de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ubicado en Plaza de Gipuzkoa s/n - 20004 de San Sebastián, o por fedatario público competente. Para ello será necesario presentar la documentación original y su copia.

5.5. Recuperación de la documentación aportada:

La recuperación de la documentación aportada podrán realizarla los y las aspirantes en el lugar y durante el plazo que se determine en la resolución del tribunal calificador por la que se haga pública la lista de aprobados y seleccionados de cada convocatoria, salvo la documentación necesaria para su nombramiento como funcionario o funcionaria en prácticas o como funcionario o funcionaria de carrera, siempre y cuando no exista reclamación por parte de alguna de las personas aspirantes, en cuyo caso podrán ser retenidas a efectos de comprobación o prueba. En el caso de no ser retirada en el plazo señalado, se entenderá que el o la aspirante renuncia a su recuperación, perdiendo, por tanto, su derecho a ello.

*6. Admisión de aspirantes.*

Expirado el plazo de presentación de instancias, el diputado foral del Departamento para la Calidad en la Administración Foral aprobará la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos, que se hará pública en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, y será expuesta en el tablón de anuncios de la Diputación Foral de Gipuzkoa, concediéndose un plazo de 10 días hábiles para la subsanación de defectos u omisiones que hubieran motivado la exclusión, o para plantear reclamaciones contra las listas.

La lista provisional se entenderá automáticamente elevada a definitiva si no se presentaran reclamaciones, o no se apreciaran errores de oficio. Si hubiera reclamaciones y fueran estimadas, se dictará una nueva resolución por la que se apruebe la lista definitiva, que se hará pública, asimismo, en la forma indicada.

Aquellos aspirantes que, habiendo sido excluidos en las listas provisionales, hubieran presentado reclamación en plazo contra dichas listas, podrán presentarse de forma cautelar a la realización de las pruebas, si para dicha fecha no se ha resuelto la reclamación planteada.

Asimismo, las personas excluidas en las listas definitivas, podrán presentarse a la realización de las pruebas con carácter cautelar, siempre y cuando acrediten haber presentado el oportuno recurso contra su exclusión, y si para dicha fecha no se ha resuelto el mismo.

El hecho de figurar en la relación de admitidos no prejuzga que se reconozca a los interesados la posesión de los requisitos exigidos en el procedimiento selectivo. Cuando de la documentación que, de acuerdo con la base 5ª, debe presentarse en caso de ser aprobado se desprenda que no poseen alguno de los requisitos, los interesados perderán todos los derechos que pudieran derivarse de su participación en este procedimiento.

*7. Tribunal calificador.*

Por orden foral del diputado foral del Departamento para la Calidad en la Administración Foral se nombrará a los miembros de los tribunales que hayan de calificar las pruebas selectivas. Los nombramientos se publicarán en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Los tribunales calificadores estarán constituidos, teniendo en cuenta el artículo 31.3 de la Ley 6/89, de la Función Pública Vasca, y de la forma siguiente:

Presidente:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko foru diputatu bat, zuzendari nagusi bat, edo Foru Administrazioaren Kalitaterako Departamentuko goi mailako teknikari karrerako funtzionario bat.

Epaimahaikideak:

— Foru Administrazioaren Kalitaterako Departamentuko karrerako funtzionario bat.

— Herri administrazioetako bi karrerako funtzionario.

— Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat.

— Langileen ordezkari bat, karrerako funtzionarioa, ordezkaritza sindikalak izendatua.

— Euskara maila neurtzeko ez besterako, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkari bat.

Idazkaria:

— Idazkaritza lanak hartuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiko idazkari tekniko batek, titular gisa, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko karrerako funtzionario batek, ordezko gisa.

Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eskatu ahal izango du, komenigarria ikusten badu. Aholkulari horiek norbere espezialitateko gaitasun teknikoa bakarrik baliatuko dute.

Epaimahaietako kideek ezin izango dute jardun, eta Foru Administrazioaren Kalitateko foru diputatuari jakinaraziko diote, eta, halaber, hautagaiek haiek gaitzesteko aukera izango dituzte, 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak 28. artikuluan aipatzen duen egoeraren bat gertatuz gero.

Uko egiteko edo abstenitzeko eskaera hamar egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, hautapen organoen izendapena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera, eta deialdia egin duen organoak erabaki beharko du bidezkoa dena.

Epaimahaiek 1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak 22 eta 27 bitarteko artikuluetan zehazten dituen arauetara egokituko dute beren jarduna. Edonola ere, lehendakariaren aginduz idazkariak deituta bilduko dira, hautapen probak egin baino behar beste lehenago, eta ondo eratuta egoteko lehendakaria eta idazkaria (edo horien ordezkoak) eta gutxienez kideen erdiak egon beharko dira bertan.

Epaimahaiak bildutakoen botoen gehiengoaz hartuko ditu erabakiak. Epaimahaietako kide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, horrek ez baitu botorik izango. Berdinketa gertatzen denean, lehendakariaren botoak erabakiko du.

Lehendakaria edo haren ordezkoa bileran ez badago, gaixorik badago, kargua hutsik badago edo bestelako kausa legalak behartzen badu, epaimahaikide zaharrenak ordeztuko du.

Idazkaria edo haren ordezkoa bileran ez badago, gaixorik badago, kargua hutsik badago edo bestelako kausa legalak behartzen badu, epaimahai bakoitzak gehiengoz erabakitzen duen mahaikideak ordeztuko du.

— Un diputado o diputada foral, director o directora general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, o un técnico superior funcionario de carrera o técnica superior funcionaria de carrera del Departamento para la Calidad en la Administración Foral.

Vocales:

— Un funcionario o funcionaria de carrera del Departamento para la Calidad en la Administración Foral.

— Dos funcionarios de carrera al servicio de las administraciones públicas.

— Un o una representante del Instituto Vasco de Administración Pública.

— Un o una representante de personal, funcionario o funcionaria de carrera, que designará la representación sindical.

